



Miguel Luiz Ferreira Ramalho deitzen naiz, 13 urte ditut, Governador Valadaresekoa naiz (Brasil) eta Prefeito Joaquim Pedro do Nascimento estatu-eskolan ikasten dut.

Eskolak martxoan eten ziren, pandemia hasi zenean. Aurrez aurreko eskolak ez dira berriz hasi eta oraingoz online egiten ditugu.

Liburuxkekin, mugikorrarekin eta ordenagailuarekin ikasten ari naiz.

Niretzat zailena da irakaslea ondoan ez izatea zalantzak argitzeko. Gainera, ikaskideen hutsunea sentitzen dut eta ez nengoen online eskoletara ohituta.

Online eskolez gain, leku itxietan ibili naiz jolasean aita eta amarekin.

Koronabirusaren egoera nire hirian eta nire herrialdean zaila da. Jende asko ari da hiltzen koronabirusarekin eta beste askok lana galdu du. Adibidez, nire etxean ama langabezian dago. Baina hau dena atzean utziko dugu, Jainkoa lagun.

Ohiz kanpoko egoera bat da, orain arte inoiz bizi izan ez duguna, baina puntu positibo bat eta puntu negatibo bat atera ditzakegu. Puntu positiboa da gure familiarekin eta maite ditugun pertsonekin denbora gehiago igarotzen ari garela. Desabantaila da pertsona asko langabezian daudela eta jendea koronabirusaren ondorioz hiltzen dela.

Eraldatzen
hasteko prest